

## Baltzu kolektiboa

### 1. Kasu praktikoa

Maria eta Fernandok bi seme-alaba dituzte Sara eta Teo. Familiak Mariaren amarengandik 1.000.000 € jaso ditu oinordetzan eta erabaki du eraikin bat erostea bere pisu eta lokalak alokatzeko asmoarekin. Negozioa ustiatzeko sozietate bat eratzen dute: Inmobiliaria Martin S.C. Bazkideak bi gurasoak eta bi umeak dira, azken hauen ordezkariak gurasoak direlarik. Baltzua Merkataritzako Erregistroan inskribatzen da eta eraikina erosten du.

Eraikinak erreforma sakon bat behar du pisu eta lokalak alokatu ahal izateko eta familiak baliabide berriak bilatzen ditu gastuei aurre egiteko. Mariak bere laguna den Juan konbentzitu nahi du 200.000 €ko inbertsioa egiteko sozietatearen bazkide bihurtuz. Juanek ez du gauza argi ikusten eta Mariak orduan egoera apur bat zuritzen du bere parte hartze hori lortzeko. Horrela, lau pisu eta bi lokalentzako jadanik interesdunak dituela esaten dio, benetan bi bezero potentzial besterik ez dituenean. Juan sinetsi egiten du Mariak esandakoa eta bazkide bezala sartzen da sozietatean 200.000€ko ekarpena eginaz.

Obrak aurreikusia zegoen baina inbertsio handiagoa galdatu dute eta urte bat pasa ondoren bi pisu besterik ez dira alokatu. Egoera ekonomikoa zaila da eta eskaintza izugarri zabaldu ba merkatuan, beraz negozioaren etorkizuna nahiko ilun ikusten da.

Juanek, benetako egoeraz jabetzen denean, oso haserre irteera eskatzen du eta sozietatearen desegitea.

#### **Galderak:**

1. X eraikuntza enpresak, eraikineko bainuak egin dituenak, 75.000€ko kreditua du oraindik kobratu gabe eta jakin nahi du zeini galdatu diezaioken ordainketa. Kontratu hori Mariak egin zuen sozietatearen izenean Juan sartu aurretik.
2. Juanek bere diruaren itzultzea eskatzen du. Mariak esaten dio baltzuak ez duela likidezirik eta gainera zorrak dituela. Eskatu dezake Juanek inbertitu zuen dirua?